

Elkarrizketa Jon Sarasuari Kalifornia saioan, ETB3 kanalean

2009/11/30

Azaroaren 5ean, Luis Mendizabal kazetariak elkarrizketa egin zion "Kalifornia" saioan Jon Sarasua HUHEZIKo irakasle eta Lanki ikertegiko zuzendariari. "Kalifornia" saioa ETB3 katean ematen da asteazkenetan, eta ETB1ean astelehenetan. Jonen elkarrizketarekin saioaren bigarren denboraldiari eman zitzaion hasiera.

"Kalifornia" saioan Jon Sarasuak iraganari eta orainari buruz hitz egiten du: zergatik utzi zituen bertso txapelketak alde batera, zelan ikusten duen bertsolaritza gaur egun... Halaber, kritikatu egiten ditu progresia eta ideologia modernistak, ez direlako gai erantzun sendoak emateko gaur egungo munduari.

